

## ILL ZAN!



Anche ikusi nuben  
 Zegola jarrita,  
 Neskach gazte ichu bat  
 Chit gaizki jantzita;  
 Penaturikan oso  
 Ura ikusita,  
 Galdetu niyon bici  
 Ez alzuben aita.  
 Segiran esan ciran  
 Etxubela bizi,  
 Aita-amaren faltan  
 Ura zala azi,  
 Gurasorikan gabe  
 Munduban igasi  
 Sufritzen besterikan  
 Etxubela ikasi.  
 ¿Zure aitag ez-aldizu  
 Ezer ere utzi?  
 Galdera egiñ niyon  
 Ichu gaisuari,  
 Eta ez eranzunik  
 Itz bat ere neri,  
 Chanpon bat eman niyon  
 Limosnaz berari.  
 Sasoyik onenian  
 Bide bazterrian,  
 Eskubak zabaldurik  
 Zeguen eskian;

Pasatzen zan guztiyak  
 Pena artzaikian,  
 Zergatikan zeguen  
 Otzak iya illian.  
 Zortzi bat egun barru  
 Pasa nitzan berriz;  
 Len bezela zeguen  
 Gaisua miseriz;  
 Eztula egiten zuben  
 Pechutikan larriz,  
 Alasen egoten zan  
 Makiñabat aldiz.  
 Irugarren aldiyan  
 Juanik beregana,  
 Ikusi nuben berriz  
 Eztulka ari zala,  
 Eta bazirudien  
 Ill biar zubela;  
 Besotikan orduban  
 Sarri niyon eldu  
 Gaisuak eziñ zuben  
 Begirik zabaldu  
 Ta bere ongillia  
 Naizuben ezagutu.  
 Laister aski juañ giñan  
 Pobreen echera,  
 Atian deitu eta  
 Monja zan atera

Nere ichu gaisua  
 Barrenen sartzera.  
 Niyon pasadizua  
 Monjari kontatu,  
 Eta norbaitek biar  
 Zubela kupitu.  
 —Ongi egiten dezu  
 Gaztia, guztiro,  
 Ichu gaiSua emen  
 Egongo da bero,  
 Jan-eranaren faltik  
 Ez izanik gero  
 Eztula sendatzia  
 Liteke espero.  
 Monja ona ayekiñ  
 Laja nubenian  
 Poz bat sentitzen nuben  
 Nere barrenian.  
 Iru-garren eguna  
 Pasatu zanian,  
 Ikustera juan nitzan  
 Zuzen zuzenian;  
 Sarturik monjarekiñ  
 Ichuben gelara,  
 Nere itza entzunta  
 Esnatu zan ura,  
 Salto egiñ nayian  
 Oyetik kanpora,  
 Neroni juan nitzayon  
 Oyaren ondora.  
 Asi zan larri-larri  
 Kontubak kontatzen  
 Eta bere buruba  
 Zuben biartutzen.  
 Zenbat sufritzen zuben  
 Eziñ leike esan,  
 Len bañan gaizkiyago  
 Orduban sentizan

Eta galdetu zigun  
 Konfesatuko zan.  
 Oyaren bazterrean  
 Neguen jarriya,  
 Zerbait neri esateko  
 Ark zeukan larriya!  
 —Ai beza, esan ziran,  
 Nere ongillia,  
 Laburtu da orainchen  
 Neretzat biziya,  
 Ta bukatu baño len  
 Daukatan guziya  
 Gauza bat artu beza  
 Estimagarriya.—  
 Itz ayek esan eta  
 Isill zan gelditu  
 Pechutikan naiyian  
 Zerbait ateratu.  
 Desio ura zuben  
 Agudo kunplitu  
 Eta gurutzecho bat  
 An ziran azaldu.  
 —Ar beza, esan ziran;  
 Gorde beza ongi,  
 Bizi dan bitartian  
 Pechuban iduki;  
 Nik chit maite dedala  
 Bedorrek badaki;  
 Onek Zeruko atiak  
 Biaizka idiki.  
 Amaren izenian  
 Diyot nik eskatzen,  
 Arren, ez utzitzeko  
 Guretze ori galtzen;  
 Biyotz biyotzetikan  
 Nuben maitatutzen  
 Zor guztiyak diyozkat  
 Orrekiñ pagatzen.—

Zuk neri ez dirazu  
 Gaiso orrek zorrik,  
 Bañan gurutzecho au  
 Gordeko dizut nik;  
 Munduban ez da ezer  
 Au baño oberik;  
 Pagatutzeko ezta  
 Mendiyan urrerik.

Egun señalagarri  
 Ostiral Santu zan  
 Ni gertatu nitzana  
 Urrengo aldiz an;  
 Ezkill agonyako  
 Otsa aditzen zan,  
 Nere ichu tristea  
 Ordubanchen ill zan!

ZIRILO ERKIZIA.

Donostiyan, 1889-an.

---

### Noticias bibliográficas y literarias.

---

*La tombe basque...* par Henri O'Shea.—Pau. 1889.—Con este título acaba de publicar el distinguido escritor Mr. Henri O'Shea un interesante estudio de los monumentos fúnebres de los euskaros, y de las costumbres que han solido guardar en sus funerales. Forma este estudio un lindo volúmen de 80 páginas, elegantemente impreso, y se halla ilustrado con preciosos dibujos de Ferdinand Corrèges.

El Sr. O'Shea merece la gratitud de los bascongados, por consagrar su talento y su pluma al estudio de la vida euskara. Así dió á luz recientemente, como no ignoran nuestros lectores, *La maison basque*, obra que le valió ser nombrado miembro correspondiente de la Real Academia de la Historia, á la cual, y á sus ilustres individuos de número R. P. Fita y D. Aureliano Fernandez-Guerra y Orbe ha dedicado el Sr. O'Shea *La tombe basque*.

---